

## Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea

«Nire medikuak ez daki euskaraz, alda al dezaket?»

«Herrian sendagile euskaldunik ez badago, eska al dezaket euskaldun bat ekardezaten?»

«Ospitaletan, gauza bera?»

Horra hor Euskaldunaren Hizkuntz Eskubideak izenarekin EKB-k atera berri duengidaliburuak Sanitate-alorrari eskaintzen dizkion hiru puntuak. Baina besteaskoz gehiago ere bururatzen zaizkio edonori.

«Telefonoz txanda eskatzen dudanean medikuarengana joateko, ez al daukatinformazio hori euskaraz jasotzeko eskubiderik?»

«Gure seme-alabak aurten amaitu ditu UBIko ikasketak eta Medikuntzan (edo Erizaintzan) matrikulatu nahi du. Ez al dago ikasketa horietan ezer euskaraz?»

Baina bada oraindik beste ikuspuntu bat ere, osasun-alorreko profesionalaren (medikuaren, erizainaren) ikuspuntua hain zuzen. Eta hemen ere bada zeresanik franko.

«Egon izan dira,  
bide hori  
urratzen saiatu  
diren  
aitzindariak eta  
gaur egun ere ez  
dira falta  
iniziatiba  
pertsonalak.  
Baina guzti  
horien lana eta  
ahalegina  
baloratuta ere,  
esan beharra  
dago ez dela  
nahikoa»

«Ezin al dezaket osasun-ziurtagirik euskaraz bete?»

«Ospitale barruko informazio ia guztia (inprimaki, txosten, historia kliniko, etab.) erdara hutsean dago. Hori euskaraz eduki nahi nuke.»

Galderak, beraz, nahi adina planteatzen dira. Baina soluzioak zein dira? Ba aldago borondate politikorik zulo guzti horiek estaltzeko? Edota aspaldiandabilen bezala, Administrazioa gaitza errotik sendatu beharrean 'oihal epelak' ezarri eta zauria goxatze eta arazoari nolabaiteko konponbidea ematenkonformatuko ote da?

Azken urteotan euskarak aurrerapauso handiak eman dituela begibistakoa da. Baina gero eta maila eta alor gehiagotan landuz doan neurrian eremu berriak ere ageri dira euskarak bereganatu behar dituenak, benetan hizkuntzaren normalizazioa egiazkoa eta osoa izan dadila nahi baldin badugu.

Eta aurreko adibideetan argi ikusi dugun bezala oraindik oso gutxi edo ia batere landu gabeko alor horietako bat, euskarari dagokionez, Osasunarena da. Egon izan dira, nola ez, bide hori urratzen saiatu diren aitzindariak (bihoazkie hemendik gure zorian eta eskerrik beroenak) eta gaur egun ere ez dira falta iniziatiba pertsonalak. Baina guzti horien lana eta ahalegina baloratuta ere, esan beharra dago ez dela nahikoa (ur-tantatxo bat itsasoaren handitasunean?). Azpiegitura-eskasia handia dago, ahalegin guzti horiek bildu eta koordinatu beharra ezinbestekoa da, premiak eta beharrak nonnahi ikusten dira eta.

Kezka honetatik abiatuz, duela hilabete batzuk ideia horri berriro helduz (eta berriro diot, zeren duela hogeita-bost urte sortu bait zen Sendakinen Arteko Euskal Elkargo Internazionale izenaz bataiatu zuten taldea, hilabete batzuetan indarrez aritu ondoren, pixkanaka pixkanaka itzaliz joan zena), Osasunaren mundu zabal eta aberatsa euskalduntzeko bide zail eta malkartsu horretan gidaritza eta akuilu-lana aldi berean egingo lituzkeen Elkarte bat sortzea bururatu zitzaigun: edozein motatako jendeari, profesional sanitarioa izan nahiz aurrekoaren ardurak 'jaso' beharrean aurkituko den pazienteari irekia, baina beti ere helburu argi batekin funtzionatu nahi duena: Osasun-mundua bere luze-zabalean euskalduntzea, alegia.

Zenbait bilera eta eztabaidaren ondotik hasierako ideia hura erakunde batean gorpuztu eta hezur-mamitu zen, Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea (OEE) izenaz legeztatu zen erakundean, hain zuzen ere.

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea 1990eko Apirilean izan zen legeztatua, eta erakunde ia jaioberria izan arren asmo eta ideiaz betea sortu da. Bere estatutuetan zehazten den bezala Erakundearen lurralde-esparrua Euskal Herrira mugatzen da eta bere helburu nagusia (gizartea euskalduntzea, alegia) lortzeko, ondorengo iharduerak burutuko ditu:

- a) Euskararen erabilera sustatzea, bai irakaskuntzan eta etorkizuneko profesionalen heziketan, eta baita laneko zentruetan eta tokietan ere, iharduera sanitarioari dagokionez.
- b) Euskararen presentzia eta erabilera bultzatu eta indartzea, Medikuntzako profesionalak eraginkortasunaren bidetik beren eguneroko ihardunean euskara erabiltzeko duten beharrianaz jabetu daitezen.
- c) Euskaraz idatzitako Medikuntza eta Osasunari buruzko aldizkari eta argitalpenen sorrera sustatzea.
- d) Hitzaldiak eta aipaturiko helburu eta iharduerei dagozkien bestelako ekitaldiak antolatzea.
- e) Era guztietako erakunde, elkarte, entitate edo partiku-

*«Azpiegitura-eskasia handia dago, ahalegin guzti horiek bildu eta koordinatu beharra ezinbestekoa da, premiak eta beharrak nonnahi ikusten dira eta»*

*«Lanerako sortu den Erakundea da OEE. Lana eta zerbitzua eskaini nahi dituen. Baina kritikari eta salaketari ere entzungor egingo ez diona, horren beharra somatzen den aldioro»*

*«Erakundea,  
irekia dago  
edonolako  
pertsonak bertan  
parte har dezan,  
osasun-arloko  
profesionala izan  
nahiz mundu  
horretara  
kanpotik  
hurbildu,  
erabiltzaile edo  
bezero gisa  
alegia»*

larrekin lankidetzan aritzea, bere helburuak lortzeko eta azaldutako iharduerak burutzeko.

Helburu horiek lortu asmoz, Erakundearen funtzionamendua ahalik eta eraginkorra izan dadin sei batzorde desberdinetan antolatua dago Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea.

1. Maila asistentzialeko taldea. Batzorde honen eginkizunik funtsezkoena osasun-arloari dagozkion hainbat puntutan (gaixoen asistentzian eta honek dakartzan era guztietako arazoetan) euskarak dituen zailtasunak eta oztopoak gainditzea da, asistentzia sanitarioaren hiru mailetan.

2. Administrazioarekiko harremanen taldea. Bereziki Osakidetzarekin eduki daitezkeen harremanak landuko ditu batzorde honek, beti ere euskararen ikuspuntutik arreta berezia jarriz.

3. Irakaskuntza maila. Batez ere Unibertsitatean (Medikuntza, Erizaintza, Heziketa Fisikoa, eta bestelako ikasketetan) Osasun-gaiak euskaraz eman daitezzen arduratuko da batzorde hau, irakaskuntza osoa euskaraz ematea lortu arteraino.

4. Talde politiko-soziala. Batzorde honen eginkizuna Euskal Herriko talde profesional, politiko, sozial, kultural, etab. desberdinekin batetik, eta komunikabideekin (prentsa, irrati, telebista, etab.ekin) bestetik, harremanak finkatu eta bideratzea izango da.

5. Talde ekonomikoa. Erakundearen martxa ona ziurtatzea eta bere eginkizunak aurrera eraman ahal izateko behar dituen baliabide ekonomikoak eskuratzea dira batzorde honen egiteko nagusiak.

6. Azpiegiturako taldea. Aurrez aipaturiko batzordeek dituzten eskari eta beharrian linguistikoei (ikastaro, hiztegi, laguntza terminologiko, etab.) erantzutea da batzorde honen lana.

Batzorde desberdinetan ikus daitekeen bezala lanerako sortu den Erakundea da OEE. Lana eta zerbitzua eskaini nahi dituen. Baina kritikari eta salaketari ere entzungor egingo ez diona, horren beharra somatzen den aldioro. Erakundea, bestalde, irekia dago edonolako pertsonak bertan parte har dezan, osasun-arloko profesionala izan (medikua, erizaina, praktikantea, etab.) nahiz mundu horretara kanpotik hurbildu, erabiltzaile edo bezero gisa alegia. Hedapen geografikoari dagokionez Erakundea Euskal Herri osora zabaldua dagoela esan beharra dago, nahiz eta probintzia edo eskualde batzuetan bere indarra eta ezarpena beste bailara edo zona batzuetan baino handiagoa izan.

Hilabete gutxi batzuk besterik lanean eraman ez arren, zenbait gauza bideratu ditu dagoeneko Erakundeak. Batzorde desberdinak martxan daude eta hasi gara egindako lanaren lehen frutuak jasotzen. Bien bitartean bazkide berriak egiten dihardugu, Administrazioarekin (Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin, zehazkiago esateko) harremanetan gaude, ospitaleetako inprimaki, txosten eta agiriak euskaratzeari ekin diogu, etab. Bestalde, osasun-munduan euskararen egiazko maila eta egoera zein den jakin asmoz inkesta batzuk zabalduko dira ospitale, eritetxe eta osasun-zentruetan, bai bertako profesionalen artean eta baita bertara hurbiltzen diren gaixo edo senideen artean ere.

Dena den, asko dago oraindik egiteko eta Erakundeak bere burua kanporatu eta ezagutzera eman beharra dauka, bai profesional sanitarioen aurrean eta baita eus-kaltzale guztien aurrean ere. Guztion ahalegina eta partaidetzabeharrezkoak izango bait dira Eraku dearen helburu lehena eta behinena lortunahi baldin bada: Osasun-mundua euskalduntzea, alegia.

*«Erakundea  
Euskal Herri  
osora zabaldua  
dago nahiz eta  
probintzia edo  
eskualde  
batzuetan bere  
indarra eta  
ezarpena beste  
bailara  
batzuetan baino  
handiagoa izan»*

Eta zer suposatzen du Osasunak eguneroko bizimoduan? Zein da Alor honen pisuespezifikoa eta zein bere garrantzia? Eritziak eritzi, zifra batzuk emangoditugu, hitz guztiak baino gehiago, beren hoztasunean, Osasun-alorraren muntaeta tamainaz jabetzeko ira urleari baliagarriak gertatuko zaizkiolakoan:

Pertsonalari begiratzen badiogu, hona hemen Alor honetako langileak:

a) Ospitale mailakoak:

- . Pertsonal sanitarioa (medikuak, erizainak....) 12.237
- . Pertsonal ez-sanitarioa (administratiboak...) 5.169

b) Ospitalez kanpokoak:

- . Pertsonal sanitarioa: 6.296 pertsona
- . Pertsonal ez-sanitarioa: 1.262 pertsona

Ospitaletan egindako ingresuak 214.963 izan ziren 1988an.

Ospitaletako kanpo-konsultetan ikusitako gaixoak, guztira, 1.174.056 izanziren 1988 urtean.

Anbulategietan, 1988 urtean egindako kontsultak 12.133.548 izan ziren.

*Jabier Agirre*

*OEEren Lehendakaria*